

# EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO SERBITZUA

Zer da? Nori zuzentzen zaio?  
Zer zerbitzu eskaintzen ditu?  
Nork eskaintzen du? Nola  
eska daiteke? Nora joan  
behar da?

## ZER ZERBITZU EMATEN DITU?

### I - BEREHALAKO LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA

#### Noiz?

Urte osoko egun guztietan eta egunaren edozein unetan. Genero indarkeria pairatu edo jasateko arriskuan dauden emakumeei arreta ematea du helburu. Etengabeko zaintza lokalizatuko modalitatea du zerbitzu honek. Laguntza juridikoa eskatzen den Nafarroako edozein tokitara joan behar du nahitaez, ahalik eta lasterrena.

#### Zer zerbitzu eskaintzen ditu?

- Orientazioa, aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua epaitegietan, osasun zentroetan, segurtasun indarretan...
- Zerbitzu honetara jotzeko, telefono honetara deitu behar da:

**112-SOS NAFARROA**



### II - LAGUNTZA JURIDIKOKO ZERBITZU OROKORRA

#### Zer zerbitzu eskaintzen ditu?

- Informazioa, orientazioa eta aholkuak emakumeen aurkako indarkeriari buruz.
- Aholkularitza eskaerak, emakumeek hainbat esparrutan (gizarte, lan, zibil eta penala) jasaten duten diskriminazioarekin loturiko gaiei buruzkoak.
- Familia Zuzenbideari lotuta dauden alderdiei buruzko informazioa eta aholkuak (banantze eta dibortzio prozesuak, bikotearen eskubideak eta betebeharrak, ezkontideak banantzeko auzietan eta antzekoetan ebatzitako pentsioak ez ordaintzea, izatezko bikoteak, etab.) eta Doako Laguntza Juridikorako eskubidea, behar den kasuetan.

#### Non eta noiz?\*

- **Iruñean** laguntzen zaie bertako epai barrutiko eta **Agoizko** epai barrutiko emakumeei, Abokatuen Elkargoko egoitzan, astelehenetik ostiralera, 16.30etik 18.30era.
- **Tuteran**, bertako epai barrutiko emakumeei laguntzen zaie Abokatuen Elkargoko egoitzan, ostegunetan eta ostiraletan, 11.00etatik 13.00etara.
- **Lizarran**, bertako epai barrutiko emakumeei laguntzen zaie Abokatuen Elkargoko egoitzan, ostegunetan, 11.00etatik 13.00etara.
- **Tafallan**, bertako epai barrutiko emakumeei laguntzen zaie Abokatuen Elkargoko egoitzan, ostiraletan, 12.00etatik 14.00etara.

\* Komeni da alde zuzenetik hitzordua hartzea, behar den egoitzako telefonora deituz. Uztailean eta abuztuan, goizez ematen da laguntza. Galdetu behar den egoitzan.

## HELBIDEAK

### Iruñeko Abokatuen Elkargoa

Armada etorb. 2, 10.a.  
31002 Iruña  
T 948 221 475  
F 948 206 287

### Tuterako Abokatuen Elkargoa

Pablo Sarasate kalea, 3, 1. A.  
31500 Tuter  
T 948 825 671  
F 948 824 741

### Lizarrako Abokatuen Elkargoa


Foruen plaza, 12,  
solairuartea.  
31200 Lizarra  
T 948 550 612 / 948 556 490  
F 948 554 501

### Tafallako Abokatuen Elkargoa

Severino Fernández etorbidea, 52.  
31300 Tafalla  
T 948 704 719  
F 948 704 708

### Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Lizarra k. 7, solairuarterkoa.  
31002 Iruña  
T 948 206 604  
F 948 206 392



## ZER DA EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA?

**Doako** zerbitzua da, Nafarroako emakume guztiei eskaintzen zaiena. **Informazioa eta aholkularitza** ematen ditu, baita **laguntza eta laguntza juridikoa ere**, tratatu txarrak edota sexu erasoak gertatzen direnean bereziki.

**Nafarroako berdintasunerako Institutuak** finantzatzen du; Iruña, Tuter, Lizarra, eta Tafallako Abokatuen Elkargoekin sinatutako lankidetzak hitzarmen baten bitartez.

